LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO

# Toki ekonomia suspertzeko eta COVID-19aren eraginak arintzeko dirulaguntzen deialdia

Convocatoria de subvenciones para el relanzamiento de la economía local y paliar los efectos del COVID-19

| Toki ekonomia suspertzeko eta COVID-19aren eraginak arintzeko dirulaguntzen deialdia | Convocatoria de subvenciones para el relanzamiento de la economía local y paliar los efectos del COVID-19 |
|---|---|
| Dirulaguntza gisa emango dira deialdi honetan jasotako laguntzak, eta lege-testu hauek aplikatu behar zaizkie: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, hau da, Diru-laguntzen Lege Orokorra, zeina uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez garatu eta arautu baitzen, Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzeko udal ordenantza (2009ko abenduaren 21eko 146. ALHAO), baita aplikagarri lekizkien gainerako legeak ere. | Las ayudas de la presente convocatoria se concederán en concepto de subvenciones y estarán sujetas a la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre desarrollada y reglamentada por medio del Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, a la Ordenanza Municipal reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, publicada en el BOTHA nº146 de fecha 21 de diciembre de 2009, así como a la legislación complementaria aplicable. |
| **LEHENENGOA. Objektua.**<br>Deialdi honen objektua da COVID-19 kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz galera ekonomiko zuzena izan duten Laudioko merkataritza-, ostalaritza- edota zerbitzu-sektoreetako enpresa eta beren konturako langile edo autonomoentzako laguntzak arautzea, negozioa aldi baterako itxi behar izana edo jarduera nabarmenki murriztu izana konpentsatu ahal izan dezaten. | **PRIMERO. Objeto.**<br>Es objeto de la presente convocatoria la regulación de las ayudas a conceder con la finalidad de paliar la situación de pérdida económica directa de las empresas y personas trabajadoras por cuenta propia o autónomas, del sector comercial, hostelero y sector servicios de Laudio, que se han visto afectadas por la declaración de estado de alarma para la gestión del COVID-19, bien por cierre temporal o por minoración ostensible de su actividad. |
| Laguntzen deialdi honen bidez helburu orokorra da Laudioko langile autonomoei eta enpresa txikiei laguntza ematea COVID-19ak eragindako krisi ekonomikoaren inpaktu ekonomiko negatiboaren minimizatzen eta, behin osasun-alarma bukatuta, ahalik eta lasterren tokiko berraktibazio ekonomikoa lortzea, zuzenean eraginik handiena jasan duten pertsona fisiko eta juridikoengan esku hartuta. | El objetivo general al que se da respuesta con esta convocatoria de ayudas es dar soporte a las personas autónomas y pequeñas empresas de Laudio, para minimizar el impacto económico negativo de la crisis económica provocada por el COVID-19 y lograr que, una vez finalizada la alarma sanitaria, se produzca, lo antes posible, una reactivación de la economía local, actuando directamente sobre las personas físicas y jurídicas más afectadas. |
| **BIGARRENA. Aurrekontu-eskuragarritasuna.**<br>Deialdi honen bidez ematen diren dirulaguntza guztien zenbateko totalak ez ditu 250.000 euroak gaindituko, ez bada alkate-udalburuaren dekretu bidez onesten kreditu eskuragarria handitzea jasotako eskaeren bolumenari erantzuteko. Deialdi honen gastua Laudio Udalaren 2020ko aurrekontuko 1000-4331-471.00 aplikazioan kargatuko da. | **SEGUNDO. Disponibilidad presupuestaria.**<br>El cómputo total de todas las subvenciones concedidas por medio de esta convocatoria no superará la cantidad de 250.000 euros, salvo que mediante Decreto de Alcaldía-Presidencia se apruebe una ampliación del crédito disponible, en función del volumen de solicitudes recibidas. El gasto de esta convocatoria se imputará con cargo al |

| | |
|---|---|
| | Presupuesto del Ayuntamiento de Llodio año 2020, partida 1000-4331-471.00. |
| **HIRUGARRENA. Erakunde eta pertsona onuradunak.**<br>1.-Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira jarraian azalduko diren baldintzak betetzen dituzten enpresak (sozietate zibilak enpresa gisa hartuko dira) eta beren kontura lan egiten duten pertsonak:<br>• COVID-19 kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioak pairatu izana, hala 463/2020 ED-aren ondorioz itxi behar izan dutenak, nola jardueraren murrizketa nabarmena sufritu izanagatik (diru-sarreren % 75eko beherakada, alarma-egoeraren aurreko seihilekoaren batez bestekoarekin alderatuta). Baldin eta pertsona fisiko edo juridikoak ez badaramatza diru-sarreren murrizketa frogatzeko sei hilabeteak alta egoeran, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da balorazioa.<br><br>• Alarma-egoeraren ondorioz xedatutako aldi baterako itxiera jasan duen jarduera-murrizketa konpentsatu ez izana pertsona eskatzailearen Internet edo telefono bidezko negozioaren bolumenaren igoerarekin.<br><br>• Eragindako jarduera txikizkako merkataritzaren, handizkako merkataritzaren, ostalaritzaren edo zerbitzuen sektorekoa izatea.<br>• 2020ko martxoaren 14an egoitza fiskala Laudio udalerrian izatea eta eragindako lantokia ere Laudion egotea.<br><br>• 2020ko otsailaren amaieran aitortutako plantilla-bolumena 15 pertsona edo gutxiago izatea.<br>• Egunean izatea Laudio Udalarekiko nahiz beste administrazioekiko zerga-obligazioak nahiz zergez bestekoak.<br><br>• Autonomoen kasuan, autonomo gisa afiliatua egotea eta alta egoeran egon izana alarma-egoera deklaratu zenean (2020ko martxoaren 14an).<br>• Hilabeteko epean jarduerari berrekitea, hau da, behin alarma-egoeraren deklarazioa bukatutakoan edo jarduerari berrekitea baimentzen denean.<br><br>2.- Deialditik kanpo geratzen dira administrazio publikoak, haien organismo autonomoak, | **TERCERO. Entidades y personas beneficiarias.**<br>1.-Podrán ser beneficiarias de estas ayudas las personas trabajadoras por cuenta propia y las empresas (considerando como tales a las sociedades civiles) que reúnan los siguientes requisitos:<br>• Haberse visto afectados como consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión del COVID-19, bien negocios obligados al cierre por el RD 463/2020 o bien por minoración ostensible de su actividad que suponga una caída de más del 75% de sus ingresos en relación a la media del semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma. Cuando la persona física o jurídica no lleve de alta los seis meses naturales exigidos para acreditar la reducción de los ingresos, la valoración se llevará a cabo teniendo en cuenta el periodo de la actividad.<br>• Que la actividad afectada por el cierre temporal dispuesto por el estado de alarma, no se haya visto compensada por un incremento de la facturación mediante un aumento del volumen de negocio online o telefónico de la persona solicitante.<br>• Que la actividad afectada se desarrolle en los sectores de comercio al por menor, comercio al por mayor, hostelería o sector servicios.<br>• Que a fecha 14 de marzo de 2020 tuvieran su domicilio fiscal de la actividad en el municipio de Laudio y radique en el municipio el centro de trabajo afectado.<br>• Que el volumen volumen de plantilla declarado a final de febrero 2020 no sea superior a 15 personas.<br>• Que se hallen al corriente de pago de sus obligaciones tributarias y no tributarias con el Ayuntamiento de Laudio/Llodio y con otras administraciones.<br>• En el caso de autónomos/as, estar afiliado como autónomo/a y con el alta en vigor en la fecha de la declaración del estado de alarma (14 de marzo de 2020).<br>• Que vuelvan a reiniciar su actividad en el plazo máximo de un mes, una vez desaparezca la declaración del estado de alarma o se permita el reinicio de dicha actividad.<br>2.-Quedan excluidas las administraciones |

| | |
|---|---|
| enpresa publikoak eta bestelako erakunde publikoak, baita elkarteak, fundazioak eta, oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak zein haien lankide autonomoak ere.<br>3.- Deialditik kanpo geratzen dira osasun-alarmaren indarraldian Laudio Udalarekin kontraturen bat indarrean duten pertsona fisiko eta juridikoak.<br>4.- Deialditik kanpo geratzen dira Laudio Udalaren aurrekontu orokorrean jasotako dirulaguntza izendunen baten onuradun diren pertsona fisiko eta juridikoak.<br><br>5.- Ezingo dute onuradun izan Diru Laguntzen Lege orokorrean (azaroaren 17ko 38/2003 Legean) edota Laudio Udalaren dirulaguntzak arautzeko udal ordenantzan baztertzeko arrazoi gisa jaso diren zirkunstantzietako bat duten pertsonak eta erakundeak.<br><br>6.- Pertsona juridikoen eta bazkide autonomo batek baino gehiagok osatutako beste erakunde ekonomikoen kasuan, enpresa izango da onuraduna, ez bazkideak; hori dela eta, dirulaguntza bakar bat emango zaio pertsona juridiko edo erakunde ekonomiko bakoitzari. | públicas, sus organismos autónomos, las empresas públicas y otros entes públicos, así como las asociaciones, fundaciones y, en general, entidades sin ánimo de lucro y el personal autónomo colaborador.<br>3.-Quedan excluidas todas aquellas personas físicas y jurídicas que, durante el periodo de alarma sanitaria, tuvieran algún contrato en vigor con el Ayuntamiento de Laudio/Llodio.<br>4.-Quedan excluidas todas aquellas personas físicas y jurídicas que cuenten en el Presupuesto General del Ayuntamiento de Laudio/Llodio con una subvención nominativa de la que sean beneficiarias.<br>5.-No podrán obtener la condición de beneficiario o beneficiaria aquellas personas o entidades en las que concurra alguna de las circunstancias contempladas como motivo de exclusión en la Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones o en la Ley 38/2003 de 17 de noviembre, Ley General de Subvenciones.<br>6.-En el caso de personas jurídicas y otras entidades económicas compuestas por más de una persona socia autónoma, será beneficiaria la empresa y no sus personas socias; por ello, se otorgará una única subvención a una misma persona jurídica u entidad económica. |
| **LAUGARRENA. Beste dirulaguntzekiko bateragarritasuna.**<br>Laguntza hauek bateragarriak izango dira eskualdeko, Estatuko, Europar Batasuneko nahiz nazioarteko erakundeetako beste administrazioek edo erakunde publiko zein pribatuek ematen duten beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekin, betiere, laguntzek guztira batzen duten zenbatekoak ez badu gainditzen COVID-19aren ondoriozko galerak.<br>Hala ere, ezingo dira deialdi honen bidez finantzatu dagoeneko beste erakunde publikoen dirulaguntza-ildoren bat jaso duten gastuak. | **CUARTO. Compatibilidad con otras subvenciones.**<br>Estas ayudas serán compatibles con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso procedente de otras Administraciones o entes, públicos o privados, regionales, nacionales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre y cuando el importe total de las ayudas que se perciba no supere las pérdidas económicas derivadas del COVID-19.<br>Ahora bien, no se podrán subvencionar a través de esta convocatoria gastos que ya hayan sido financiados a través de líneas de subvención de otras instituciones públicas. |
| **BOSGARRENA. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**<br>1.-Kontzeptu hauek izango dira laguntzen deialdi honen objektu:<br>• Langile Autonomoen Araubide Berezian diharduen konturako langile gisa ordaindu beharreko kotizazioen kuotak, edo Gizarte Segurantzaren nahiz nahitaezko mutualitate profesionalen kasuan, dagokion araubidekoak. Gastu hori ez da laguntza deialdi honen objektu | **QUINTO. Gastos subvencionables.**<br><br>1.-Se considerarán actuaciones objeto de esta ayuda las siguientes:<br>• Las cuotas relativas al pago de la cotización como trabajador/a por cuenta propia en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos o en el que, en su caso, corresponda de la Seguridad Social o en Mutualidades profesionales obligatorias. Dicho |

| | |
|---|---|
| izango beste administrazio publikoren batek diruz lagundu badu. | gasto no se considerará objeto de esta ayuda cuando haya sido subvencionado por otras administraciones públicas. |
| • Autonomo edo enpresen kasuan, langile bat edo gehiago haien kargura badute, 2020ko martxoaren 14an enplegatzaileak bere langileei ordainduak zizkien gastuak. Jarduera aldi baterako eteteko nahitaezko baldintza izango da lan arloko legeetan araututako bermeak, obligazioak eta prozedurak betetzea. | • En el caso de autónomos/as o empresas, si tienen una o más personas trabajadoras a su cargo, gastos que hubiera abonado la persona empleadora al personal adscrito con fecha 14 de marzo de 2020. Será requisito previo al cese temporal de la actividad el cumplimiento de las garantías, obligaciones y procedimientos regulados en la legislación laboral. |
| • Negozio-lokalen alokairu gastuak, betiere, lokala familia-etxebizitza baten zati ez bada eta 2. mailarainoko senidetasunik edo afinitaterik ez badago lokalaren alokatzailearekin, edota lokalaren alokatzailearen bazkide edo partaide ez bada. Gastu hori beste administrazio publikoren batek diruz lagundu badu, ez da laguntza deialdi honen objektu izango. | • Gastos de arrendamiento de locales de negocio, siempre y cuando no sean parte de una vivienda familiar y no exista relación de parentesco hasta 2º grado de consanguinidad o afinidad con el/la arrendador/a del local, ni sea socio/a o participe de la persona física o jurídica que actúe como arrendador/a. Dicho gasto no se considerará objeto de esta ayuda cuando haya sido subvencionado por otras administraciones públicas. |
| • Mantentze-, hornitze-, makineria, instalazio- eta ekipamendu-gastuak, betiere, bideratzen ari zen jarduerari zuzenki lotuak badaude. | • Gastos de mantenimiento de suministros, maquinaria, instalaciones y equipos adscritos directamente a la actividad que se venía desarrollando. |
| • Ekipamenduak, instalazioak nahiz pertsonak desinfektatzeko adituen kanpo-laguntza, soilik arrisku egoerari aurre egiteko. | • Asistencia experta externa para labores de desinfección de los equipos, instalaciones y de las personas, exclusivamente en respuesta a la situación de contingencia. |
| • Kanpo-adituen aholkularitza edo laguntza jasotzeko gastuak, betiere, konektagarritasun-soluzioak edota telelana, segurtasunerako edota arriskuen aurkako planak, giza baliabideen arloko kontziliazio planak, ekoizpena eta logistika kudeatzeko planak eta krisi-egoerari berehalako erantzuna emateko bestelako planak garatu, definitu eta ezartzeko badira. | • La consultoría o asistencia experta externa vinculada al desarrollo, definición e implantación de soluciones de conectividad e incorporación del teletrabajo, de planes de seguridad o contingencias, de planes de RRHH de conciliación, de planes gestión de la producción y la logística y otros planes vinculados a la respuesta inmediata de la situación de referencia. |
| • COVID-19ari aurre egiteko higiene eta segurtasun eskakizunak betetzeko higiene- eta segurtasun-materiala eskuratu eta, horren bidez, negozioa egokitzeko gastuak (maskarak, pantailak, desinfekzio-ekipamenduak, material suntsikorra, etab.). | • Gastos para la adquisición de material de higiene y seguridad para adaptar el negocio a los requisitos de higiene y seguridad derivados del COVID-19 (máscaras, pantallas, equipos de desinfección, material fungible, etc.). |
| • Jardueraren aseguru primei dagozkien gastuak. | • Gastos correspondientes a primas de seguros de la actividad. |
| • Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergaren (TMIZ-ren) 2020ko ordainketa, betiere zergapetutako ibilgailua negozioari loturik erregistratua badago, udalerriaren barruan jarduera ekonomikoak bideratzeko erabiltzen bada, eta negozio bakoitzeko ibilgailu 1eko muga izanda. | • Abono del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica – IVTM correspondiente al año 2020 y siempre que el vehículo sobre el que se paga el impuesto esté registrado y vinculado al negocio, y se utilice para desarrollar actividades económicas dentro del término municipal; con el límite de 1 vehículo por negocio. |

| | |
|---|---|
| • Hornidurak ordaintzea (argindarra, ura, telefonoa, etab.).<br>• Ohiko jarduera ekonomikoari lotutako bestelako gastu arruntak.<br>2.- Gastu horiek alarma-egoerak iraun bitartean egindakoak edo alarma-egoera bukatu edota jarduerari berrekitea baimendu ondorengo 3 hilabeteetan egindakoak izan daitezke (lehenago gertatzen dena hartuko da kontuan). | • Pago de suministros (luz, agua, teléfono, etc.).<br>• Otros gastos corrientes directamente vinculados a la actividad económica habitual.<br>2.-Estos gastos podrán haberse desarrollado bien durante el periodo de estado de alarma o bien desarrollarse durante los 3 meses inmediatamente siguientes desde el levantamiento del estado de alarma o desde que se permita el reinicio de la actividad (será tenida en cuenta la fecha que finalice con anterioridad). |
| **SEIGARRENA. Dirulaguntzaren zenbatekoa.**<br>1.-Laguntzaren gehienezko zenbatekoa 1.200 €-koa izango da. Laguntza nahitaez erabili beharko da COVID-19 kudeatzeko alarma-egoeraren deklarazioaren ondorioz txikizkako establezimendu txikiak edota negozioak aldi baterako itxi behar izan dituzten enpresariek eta autonomoek izan dituzten kalte ekonomikoen inpaktua arintzeko. | **SEXTO. Cuantía de la subvención.**<br>1.-El importe máximo de la ayuda será de 1.200 €. La ayuda deberá destinarse a paliar el impacto económico de los daños económicos resultantes del cierre temporal de pequeños establecimientos minoristas, de negocios por parte de empresarios/as y autónomos/as, al haberse visto afectados como consecuencia de la declaración del estado de alarma para la gestión del COVID-19, bien por cierre temporal o por minoración ostensible de al menos el 75% de su actividad. |
| 2.-Baremo hauen arabera kalkulatuko da kasuan kasuko dirulaguntzaren gehienezko zenbatekoa (k*ontuan hartuta 2020ko otsailaren amaieran aitortutako plantilla-bolumena)*: | 2.-La cuantía máxima de subvención se ajustará a los siguientes baremos (*considerando el volumen de plantilla declarado a final de febrero 2020)*: |

| | **Establezimenduaren egoera alarma egoeraren bitartean**<br>Situación del establecimiento durante estado de alarma | |
|---|---|---|
| **Langileak (hala dagokionean, promotorea barne)**<br>*Empleados/as (incluido, en su caso, promotor/a)* | Itxia<br>*Cerrado* | Fakturazioaren % 75eko murrizketa<br>*Reducción de facturación 75%* |
| **0 eta 1 artean**<br>*Entre 0 y 1* | 750,00 € | 600,00 € |
| **1 baino gehiago 5 arte**<br>*Mayor que 1 y hasta 5* | 900,00 € | 700,00 € |
| **5 baino gehiago 10 arte**<br>*Mayor que 5 y hasta 10* | 1.000,00 € | 800,00 € |
| **10 baino gehiago eta 15 arte**<br>*Mayor que 10 y hasta 15* | 1.200,00 € | 900,00 € |

*Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, lanaldiaren ehunekoaren arabera kalkulatuko da /
*Si se trata de contratos a tiempo parcial computarán por el % de la jornada.*

| | |
|---|---|
| 3.-Eskaera garaiz aurkezten duten eta deialdian zehaztutako betekizunak bete dituzten, baina hasiera batean esleitutako kreditua agortu | 3.-Todas las solicitantes de estas ayudas que hubieran presentado en plazo su solicitud y cumplido los requisitos establecidos en esta |

| | |
|---|---|
| izanagatik laguntzarik jasotzen ez duten eskatzaile guztiak erreserban geratuko dira, deialdi honetarako aurrekontua handitzeko aukeraren zain. | convocatoria, que no hayan sido objeto de concesión de ayuda por haberse agotado el crédito inicial asignado, quedarán en reserva a la espera de una posible ampliación del presupuesto destinado a esta convocatoria. |
| **ZAZPIGARRENA. Pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak.**<br>Deialdiaren artikuluetan ezarritakoez gain, hauek izango dira pertsona eta erakunde onuradunen betebeharrak: | **SÉPTIMO. Obligaciones de las personas y entidades beneficiarias.**<br>Las obligaciones de las personas y entidades beneficiarias, además de las establecidas en otros artículos de la convocatoria, son las siguientes: |
| a) Behar bezala betetzea dirulaguntzak arautzeko udal ordenantzan zehaztutako arauak, baita dirulaguntza emateko ebazpenean ezar litezkeen baldintza partikularrak ere. | a) Cumplir debidamente con las normas establecidas en la Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones, así como las condiciones particulares que pudieran establecerse en la resolución por la que se conceda la subvención. |
| b) Aurreko urteetako deialdien bidez Laudio Udalak edozein jardun-arlotarako emandako dirulaguntzak justifikatu izana. | b) Haber justificado las subvenciones concedidas por el Ayuntamiento de Laudio/Llodio correspondientes a precedentes convocatorias y relativas a cualquier clase o tipo de área de actuación. |
| c) Eman zaien zenbatekoari emandako erabilera justifikatzea, udal ordenantzaren eta deialdi honen baldintzen arabera. | c) Proceder a la justificación posterior del empleo dado a la cantidad otorgada, en los términos de la Ordenanza Municipal y la presente convocatoria. |
| d) Jakinaraztea xede bererako beste edozein laguntza ekonomiko jaso izana, hala jatorri publikokoak nola jatorri pribatukoak, esanbidez adierazita jasotako zenbatekoa. Jakinarazpen hori dirulaguntza jasoko dela jakin bezain laster egin beharko da, eta, nolanahi ere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu baino lehen. | d) Comunicar la obtención de cualquier otra ayuda económica para el mismo fin, sea su procedencia bien pública o bien privada con indicación expresa en todo caso de la cuantía recibida. Esta comunicación deberá efectuarse tan pronto como se conozca y, en todo caso, con anterioridad a la justificación de la aplicación dada a los fondos percibidos. |
| e) Organo emaileak edo erakunde laguntzaileak egin ditzakeen egiaztatze-jardunak onartu eta erraztea, kasuan kasu eskatzen zaien informazio eta dokumentazio guztia emanda. | e) Someterse a las actuaciones de comprobación a efectuar por el órgano concedente o la entidad colaboradora, debiendo facilitar la información y cuanta documentación le sea requerida al caso. |
| f) Gizarte Segurantzarekiko obligazioak eta zerga-betebeharrak egunean izatea. | f) Hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. |
| g) Emandako dirulaguntza modu egokian justifikatzen dela bermatzeko, pertsona juridikoek edo erakunde laguntzaileek merkataritzako legeriak eskatutako terminoetan eduki behar dituzten liburuak eta kontabilitateko erregistro espezifikoak aurkezteko betebeharra, hala errekeritzen bazaie. | g) Obligación de aportar, para garantizar la adecuada justificación de la subvención concedida en caso de ser requerido para ello, los libros y registros contables específicos que deban llevar las personas jurídicas o entidades colaboradoras en los términos exigidos por la legislación mercantil. |
| h) Jasotako dirulaguntzaren erabilera egiaztatzeko agiri guztiak gorde behar dira, | h) Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, |

| | |
|---|---|
| baita elektronikoak ere, egiaztatze- eta kontrol-jardueratarako erabil daitezkeen heinean. | incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control |
| i) Dirua itzaultzeko kasua legalak daudenean, jasotako funtsak itzultzea. | i) Proceder al reintegro de los fondos percibidos cuando medie las causas legales de reintegro. |
| **ZORTZIGARRENA. Eskaerak aurkeztea.** | **OCTAVO. Presentación de solicitudes.** |
| 1.- Deialdi hau ALHAO-n argitaratzen den biharamunetik hasita, hogei egun balioduneko epea egongo da eskaerak aurkezteko. Instantzia normalizatuaren bidez eskatu beharko dira, udaletxeko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (beheko solairuan) edo urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoan zehaztutako beste moduetan. | 1.-Las solicitudes deberán presentarse en un plazo de veinte días hábiles contados a partir del día siguiente a la publicación de la presente convocatoria en el BOTHA, debiendo ser presentadas en instancia normalizada y en el servicio de atención a la ciudadanía (planta baja) del Ayuntamiento o en las formas especificadas en Ley 39/2015, del 1 de octubre de Procedimiento Administrativo Común. |
| 2.-Dokumentazio hau aurkeztu beharko da: | 2.-Se aportará la siguiente documentación: |
| ***A) Pertsona fisikoen kasuan*** | ***A) En el caso de persona física*** |
| • Eskatzailearen NAN/AIZ, hala bere izenean dihardueneanan, nola hirugarren baten ordezkari gisa dihardueneanan. | • DNI/NIE de la persona solicitante, bien porque actúa en nombre propio o representando a un tercero. |
| • Eskaera ordezkari batek aurkezten duenean, ordezkaritzaren baimena ere aurkeztu beharko da. | • En caso de que la solicitud la realice un representante deberá presentar autorización de representación. |
| • Interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatutako laguntza-eskaeraren inprimaki eredua (udal webgunean eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskura daiteke). | • Solicitud de la ayuda firmada por la persona interesada o representante de la persona solicitante según modelo establecido (disponible en la web municipal y en el SAC). |
| • Langileak ardurapean izanez gero, Gizarte Segurantzak emandako TC2 agiria, 2020ko otsailaren amaieran enpresan alta emanda zeuden langileen zerrenda jasotzen duena. | • En caso de tener trabajadores/as a su cargo, documento TC2 expedido por la Seguridad Social, que incluya la relación nominal de trabajadores/as de alta en la empresa a fecha de fin de febrero 2020. |
| • 2020ko otsailari dagokion autonomoen ordainagiriak. | • Recibos de autónomos/as correspondiente a febrero de 2020. |
| • Martxoaren 14ko 463/2020 ED-aren 10. artikulua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 ED-an xedatutako establezimendu-itxieraren eragina eduki ez duten, baina alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturaleko batez bestekoarekin alderatuta, fakturazioa gutxienez % 75 murriztu zaien negozioen kasuan, murrizketa hori frogatu beharko dute, hori justifikatzeko alarma-egoera deklaratu aurreko sei hilabeteetatik (irailetik otsailera) laguntza hau eskatzen den egunera bitarteko kontabilitate-informazioa aurkeztuta. Zehazki, dokumentazio hau aurkeztu behar da: | • En aquellos casos en los que no se ha visto afectados por el cierre de establecimientos dispuesto en RD 465/2020 de 17 de marzo que modifica el artículo 10 del RD 463/2020 de 14 de marzo y hayan sufrido una reducción de su facturación de al menos el 75% en relación con la media efectuada en el semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma, deberán acreditar esta reducción mediante la aportación de la información contable que lo justifique desde los 6 meses previos al mes de la declaración del estado de alarma (septiembre a febrero) hasta la fecha de presentación de la solicitud de esta ayuda: |
| o Jaulkitako fakturen eta diru-sarreren | o Libro de registro de facturas emitidas e |

| | |
|---|---|
| erregistro-liburua, edo diru-sarreren edo fakturen erregistro-liburuak. Baldin eta pertsona fisikoak ez badu jardueraren bolumena frogatzeko liburuak izateko betebeharrik, jarduera gutxienez % 75ean murriztu izana egiaztatu beharko da Zuzenbidean onartzen den edozein froga-bide erabilita. Baldin eta pertsona fisiko edo juridikoak ez badaramatza alta egoeran diru-sarreren murrizketa frogatzeko beharko liratekeen sei hilabeteak, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da zenbatespena.<br><br>o Mutuak prestazioa ematearen alde emandako ebazpena ere aurkeztu daiteke aurrekoaren faltan, jarduera 463/2020 ED-aren kariaz nahitaez eten behar izan denean edo fakturazioa % 75 murriztu denean.<br><br>***B) Pertsona juridikoen edo enpresen kasuan***<br>• Eskatzailearen NAN/AIZ, hala bere izenean diharduenean, nola hirugarren baten ordezkari gisa diharduenean.<br>• Eskaera ordezkari batek aurkezten duenean, ordezkaritzaren baimena ere aurkeztu beharko da.<br>• Interesdunak edo eskatzailearen ordezkariak sinatutako laguntza-eskaeraren inprimaki eredua (udal webgunean eta Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan eskura daiteke).<br><br>• Sozietate zibilen nahiz izaera juridikorik gabeko beste erakunde ekonomikoen kasuan, behar bezala erregistratutako eratze-kontratua.<br>• Eskatzaileak bere kargura langileak baditu, enpresaren lan-bizitzaren txostena, Gizarte Segurantzako Diruzaintzak jaulkia, zeinetan agertu beharko den 2019ko irailetik 2020ko otsailera izandako batez besteko langile kopurua.<br>• Administratzailearen alta dagokion Gizarte Segurantzako araubidean.<br><br>• Martxoaren 14ko 463/2020 ED-aren 10. artikulua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 ED-an xedatutako establezimendu-itxieraren eragina eduki ez duten, baina alarma-egoera deklaratu aurreko seihileko naturaleko batez bestekoarekin alderatuta, fakturazioa gutxienez % 75 murriztu zaien negozioen kasuan, murrizketa hori frogatu | ingresos o libro registro de ingresos o de facturas. Cuando la persona física no esté obligada a llevar los libros que acreditan el volumen de actividad, deberán acreditar la reducción al menos del 75% exigida por cualquier medio de prueba admitido en derecho. Cuando la persona física no lleve de alta los 6 meses naturales exigidos para acreditar la reducción de los ingresos, la valoración se llevará a cabo teniendo en cuenta el periodo de actividad.<br><br>o Si se tuviera, podría sustituirse lo anterior por la resolución de la mutua favorable de la concesión de la prestación, correspondiente por cese obligatorio del 463/2020 o por reducción del 75% de la facturación.<br><br>***B) En el caso de persona jurídica - empresa***<br>• DNI/NIE de la persona solicitante, bien porque actúa en nombre propio o representando a un tercero.<br>• NIF de la empresa<br>• En caso de que la solicitud la realice un representante deberá presentar autorización de representación.<br>• Solicitud de la ayuda firmada por la persona interesada o representante de la persona solicitante según modelo establecido (disponible en la web municipal y en el SAC).<br><br>• Contrato de constitución debidamente registrado en el caso de sociedad civil u otras entidades económicas sin personalidad jurídica.<br>• En caso de tener trabajadores/as a su cargo, documento TC2 expedido por la Seguridad Social, que incluya la relación nominal de trabajadores/as de alta en la empresa a fecha de fin de febrero 2020.<br>• Alta en el régimen de la Seguridad Social correspondiente de la persona administradora.<br>• En aquellos casos en los que no se ha visto afectados por el cierre de establecimientos dispuesto en RD 465/2020 de 17 de marzo que modifica el artículo 10 del RD 463/2020 de 14 de marzo y hayan sufrido una reducción de su facturación de al menos el 75% en relación con la media efectuada en el semestre natural anterior a la declaración del |

| | |
|---|---|
| beharko dute, hori justifikatzeko alarma-egoeraren deklarazio-dataren (2020 martxoaren 14aren) aurreko sei hilabeteetatik laguntza hau eskatzen den egunera bitarteko kontabilitate-informazioa aurkeztuta. Zehazki, dokumentazio hau aurkeztu behar da: | estado de alarma, deberán acreditar esta reducción mediante la aportación de la información contable que lo justifique desde los 6 meses previos a la declaración del estado de alarma (14 de marzo de 2020) hasta la fecha de presentación de la solicitud de esta ayuda: |
| o Salmenten eta diru-sarreren erregistro-liburua, edo diru-sarreren edo jaulkitako fakturen erregistro-liburuak. Baldin eta pertsona fisikoak ez badu jardueraren bolumena frogatzeko liburuak izateko betebeharrik, jarduera gutxienez % 75ean murriztu izana egiaztatu beharko da Zuzenbidean onartzen den edozein froga-bide erabilita. Baldin eta pertsona fisiko edo juridikoak ez badaramatza alta egoeran diru-sarreren murrizketa frogatzeko beharko liratekeen sei hilabeteak, jarduera-aldia kontuan hartuta egingo da zenbatespena. | o Libro de registro de ventas e ingresos o libro registro de ingresos o facturas emitidas. Cuando la persona física no esté obligada a llevar los libros que acreditan el volumen de actividad, deberán acreditar la reducción al menos del 75% exigida por cualquier medio de prueba admitido en derecho. Cuando la persona física no lleve de alta los 6 meses naturales exigidos para acreditar la reducción de los ingresos, la valoración se llevará a cabo teniendo en cuenta el periodo de actividad. |
| o Mutuak prestazioa ematearen alde emandako ebazpena ere aurkeztu daiteke aurrekoaren faltan, jarduera 463/2020 ED-aren kariaz nahitaez eten behar izan denean edo fakturazioa % 75 murriztu denean. | o Si se tuviera, podría sustituirse lo anterior por la resolución de la mutua favorable de la concesión de la prestación, correspondiente por cese obligatorio del 463/2020 o por reducción del 75% de la facturación. |
| 3.- Aipatutako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko da interesdunak edo pertsona edo erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, zeinetan jarraian ageri diren gaien inguruko esanbidezko adierazpenak jasoko baitira: | 3.-Junto a la documentación anterior, se deberá aportar Declaración Responsable firmada por la persona interesada o representante legal de la persona o entidad solicitante que contendrá el pronunciamiento expreso sobre las siguientes cuestiones: |
| • Bideratzen den jarduerak martxoaren 14ko 463/2020 ED-aren 10. artikulua aldatu zuen martxoaren 17ko 465/2020 ED-an xedatutako establezimendu-itxieraren eragina izan duela, edo, kasua hori ez bada, fakturazioa gutxienez % 75 murriztu zaiela, alarma-egoera deklaratu aurreko seihilekoaren batez bestekoarekin alderatuta. Diru-sarreren murrizketa frogatzeko behar diren 6 hilabeteetan altan egon ez bada, altan egon bitartean % 75eko murrizketa izan duela adierazi beharko da. | • Que la actividad desarrollada se ha visto afectada por el cierre de establecimientos dispuesto RD 465/2020 de 17 de marzo que modifica el artículo 10 del RD 463/2020 de 14 de marzo o, no siendo este el caso, que la actividad desarrollada ha sufrido una reducción de la facturación de al menos el 75%, en relación con la media efectuada en el semestre natural anterior a la declaración del estado de alarma, o en caso de no llevar de alta los 6 meses naturales exigidos para acreditar la reducción de los ingresos, durante el periodo de alta. |
| • Alarma-egoeraren ondorioz xedatutako aldi baterako itxiera jasan duen jarduera-murrizketa konpentsatu ez izana eskatzailearen negozioaren bolumena Internet edo telefono bidez handitu izanaren ondorioz. | • Que la actividad afectada por el cierre del establecimiento dispuesta por el estado de alarma no se ha visto compensada por un incremento de la facturación mediante un incremento del volumen de negocio online o telefónico de la persona solicitante. |
| • Eskatzaileak bete egiten dituela dirulaguntza jasotzeko betekizunak. | • Que la persona solicitante reúne los |

| | |
|---|---|
| | requisitos para ser beneficiaria de la subvención. |
| • Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela dirulaguntza aurreikusitako xederako erabiltzeko. | • Que la persona solicitante asume el compromiso de destinar la subvención a la finalidad prevista. |
| • Eskatzaileak ez duela onuradun izatea eragozten duen debekurik bere gain. | • Que la persona solicitante no está incursa en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria. |
| • Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela dirulaguntzen onuradun izateko betebeharrak betetzeko. | • Que la persona solicitante se compromete al cumplimiento de las obligaciones de las personas beneficiarias de subvenciones. |
| • Eskatzaileak konpromisoa hartzen duela eskaera aurkeztu aurretik xede bererako jaso dituen beste dirulaguntzen berri emateko, baita eskaera aurkeztu ondoren eta eskaera ebatzi aurretik jaso dituen dirulaguntzak ahal bezain laster jakinarazteko konpromisoa ere. | • Que la persona solicitante se compromete a la comunicación de subvenciones concedidas con anterioridad a la presentación de la subvención con la misma finalidad y el compromiso de comunicar a la mayor brevedad posible las ayudas obtenidas con posterioridad a la presentación de la solicitud y antes de la resolución de la misma. |
| • Sozietate zibila edo izaera juridikorik gabeko bestelako erakundea izatekotan, konpromisoa hartzen duela sozietatea edo erakundea ez desegiteko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Diru-laguntzen Lege orokorraren 39. eta 65. artikuluetan jasotako iraungitze epea igaro arte, aipatutako legearen 11. artikuluarekin bat. | • Que en caso de tratarse de una sociedad civil u otra entidad económica sin personalidad jurídica no se disolverá hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 39 y 65 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, de acuerdo con lo establecido en el artículo 11 de dicha ley. |
| **BEDERATZIGARRENA. Aztertzea eta ebaztea.** | **NOVENO. Estudio y resolución.** |
| 1.- Aurkezten diren eskaera guztiak aztertuko dituzte Laudioko Garapen Agentziako Laudio Hazi zerbitzuko langileek. | 1.-Todas las solicitudes presentadas serán estudiadas por el personal de la Agencia de Desarrollo Local del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, Laudio Hazi. |
| Aurkeztu den dokumentazioan irregulartasunik edo akatsik antzeman bada, bost egun balioduneko epea emango da zuzentzeko, errekerimendua jasotzen den egunetik aurrera zenbatuta. | Si hubiese sido detectada alguna irregularidad o deficiencia en la documentación presentada se dispondrá de un plazo de cinco días hábiles para subsanarlo, a partir de la recepción del requerimiento. |
| Laudio Udalak ofizioz bideratuko ditu emandako datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen eta ebazpen-proposamena egiteko oinarritzeko behar dituen ekintza guztiak. Halaber, eskatzaileei edozein informazio osagarri eskatu ahalko die, eta hamar egun balioduneko epea emango zaie prozedurak dirauen bitartean Laudio Udalak eska diezaiekeen dokumentazio edo txosten osagarriak aurkeztu ahal izateko. | El Ayuntamiento de Laudio/Llodio realizará de oficio cuantas actuaciones estime necesarias para la determinación, conocimiento y comprobación de los datos aportados, en virtud de los cuales deba formularse la propuesta de resolución. Asimismo, podrá solicitar cualquier información adicional a las personas solicitantes, y se dispondrá de un plazo de diez días hábiles para presentar la documentación e informes complementarios que en el transcurso del procedimiento el Ayuntamiento de Laudio/Llodio solicitase. |
| Bi kasuetan, emandako epea agortu ondoren eskaera zuzendu ez bada edo eskatutako dokumentazioa aurkeztu ez bada, eskaeran | En ambos casos, si agotado dicho plazo, la solicitud no ha sido corregida o la documentación solicitada entregada, se le |

| | |
|---|---|
| atzera egin dela ulertuko da, horretarako ebazpen administratiboa eman ostean. | tendrá desistido de su petición, previa resolución administrativa al efecto. |
| 2.- Norgehiagoka araubidea aplikatuko da dirulaguntzak emateko: eskaeran jasotako sarrera-eguna eta –dataren arabera ezarriko dira lehentasunak. Dirulaguntzak erregistratze-ordena zorrozki aplikatuta emango dira, une bakoitzean eskaerei erantzuteko dagoen kreditua agortu arte. | 2.-La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, según la fecha y hora de entrada que figuren registradas en la solicitud. La concesión de ayudas se efectuará por estricto orden de registro y hasta agotar el crédito disponible destinado a atender las mismas en ese momento. |
| 3.- Laudio Hazi zerbitzuak jasotako eskaeren inguruan emango duen txostena ikusi ostean ebatziko ditu alkate-udalburuak laguntzak. | 3.-A la vista del informe realizado por Laudio Hazi en relación a las solicitudes recibidas, el Alcalde-presidente resolverá las ayudas. |
| 4.- Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea 2 hilabetekoa da. Deialdi hau argitaratzen den egunetik aurrera zenbatuko da epe hori. | 4.-El plazo máximo de resolución y notificación es de dos meses. El plazo se computará desde la publicación de la presente convocatoria. |
| 5.- Dirulaguntza emateko ebazpenak administrazio bidea itxiko du, eta errekurtsoa aurkezteko aukera egongo da, prozedura administratiboari buruzko araudi orokorra aplikatuta. | 5.-La resolución de la concesión de la subvención pondrá fin a la vía administrativa, existiendo posibilidad de recurso, según la normativa general sobre procedimiento administrativo. |
| **HAMARGARRENA.- Jakinarazpena eta ordaintzeko era** | **DÉCIMO. Notificación y forma de pago** |
| Dirulaguntza eman edo ukatzeko ebazpena eskaeran adierazitako egoitzan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkideari buruzkoaren 42. eta 43. artikuluetan jasotako moduetan. | La resolución de concesión o denegación de la subvención será notificada a las entidades solicitantes en el domicilio que figure en la solicitud, según las formas previstas en los artículos 42 y 43 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| Gehienezko epea agortutakoan ez bada inongo ebazpenik jakinarazten, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez ezetsi zaiela ulertu beharko dute eskatzaileek. | Si vence el plazo máximo y no se ha notificado resolución alguna, por silencio administrativo, las personas interesadas han de entender desestimada su solicitud. |
| Ordainketa banku-transferentzia bidez egingo da: behin betiko ebazpena onesten den unean eta justifikazioa egin baino lehenago ordainduko da emandako dirulaguntzaren 100eko ehuna, aurretiaz, betekizunak ez betetzeagatik eska litezkeen erantzukizunak eta diru—tzulketak gorabehera. | La forma de pago será la de abonar, mediante transferencia bancaria, un pago anticipado, en el momento de la aprobación de la resolución definitiva y con carácter previo a la justificación, por importe del 100 por ciento de la subvención concedida, sin perjuicio de las exigencias de responsabilidad o reintegro por incumplimiento en su caso. |
| **HAMAIKAGARRENA. Dirulaguntza kontura ordaintzeko bermea** | **UNDÉCIMO. Garantía del pago de la subvención a cuenta** |
| Deialdi honen bidez araututako dirulaguntzen onuradunei ez zaie galdegingo bermea aurkeztea, kontuan hartuta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, hau da, Diru-laguntzen | Considerando lo dispuesto en el artículo 42 del Real Decreto 887/2006 de 21 de julio por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003 del 17 de noviembre General de |

| | |
|---|---|
| Lege Orokorraren Erregelamendua onesteko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 42. artikulua, non erabakita datozen bermea eratu beharraz salbuetsi daitezkeen kasuak. | Subvenciones que establece los supuestos de exoneración de la constitución de garantía, no se exigirá la misma a las y los beneficiarios de las subvenciones reguladas por la presente convocatoria. |
| **HAMABIGARRENA. Kontrol bermeak**<br>Dirulaguntza ematen duen organoak beharrezkotzat jotzen dituen administrazio kontrolak eta ikuskapenak egin ahal izango ditu, aurkeztutako dokumentazioko datuak egiazkoak diren edo dirulaguntza jaso ahal izateko betekizunak bete diren egiaztatzeko. | **DUODÉCIMO. Garantías de control**<br>El órgano concedente podrá realizar los controles administrativos e inspecciones que considere oportunos a fin de comprobar la veracidad de los datos consignados en la documentación presentada, así como el cumplimiento de los requisitos para la percepción de la ayuda. |
| Ikuskapenetan laguntzeko betebeharra du onuradunak, eskatutako datuak emanda eta, behar izanez gero, ikuskatzaileei jarduerak egiten diren lokaletara sartzen utzita. | La o el beneficiario tendrá la obligación de colaborar en dicha inspección, proporcionando los datos requeridos y facilitando, en su caso, el acceso a dependencias con que se realizan las actividades. |
| Laguntza-eskaera aurkeztuta, laguntzen onuradunek esanbidezko baimena ematen diote Laudio Udalari beste administrazio eta enpresa publikoei informazio eskatu eta emateko, edozein fasetan beharrezkotzat jotzen diren egiaztatze- eta kontrol-lanak bideratze aldera. | Las beneficiarias de estas ayudas, con la presentación de la solicitud de ayuda, autorizan expresamente al Ayuntamiento de Laudio/Llodio a solicitar y/o facilitar información a otras administraciones y empresas públicas con el objeto de realizar las labores de comprobación y control de la misma en cualquiera de sus fases. |
| **HAMAHIRUGARRENA. Dirulaguntza galtzea** | **DECIMOTERCERO. Pérdida de la subvención** |
| Dirulaguntzen onuradunek behean aipatuko diren baldintzetakoren bat beteko ez balute, alkate-udalburuak emandako zenbatekoak (osorik edo partzialki) eta dirulaguntza eman zenetik sortutako berandutze-interesak Laudio Udalaren aldeko banku-transferentzia bidez itzultzeko betebeharra xedatuko du, ez-betetzeen larritasunaren arabera. | En el supuesto de que las personas beneficiarias de las subvenciones incumplieran cualquiera de las condiciones que más abajo se detallan, el Alcalde-presidente, en función de la gravedad de los incumplimientos, resolverá la obligación de reintegrar la totalidad o parte de las cantidades percibidas, más el interés de demora desde el momento del pago de la subvención, mediante transferencia a la cuenta del Ayuntamiento de Llodio. |
| Hauek dira ezarritako baldintzak:<br>• Eskaeran edota aurkeztutako dokumentazioan emandako datuak faltsutzea.<br>• Dirulaguntzaren zenbatekoak bere horretan edo bestelako laguntza pribatu edo publikoei batuta negozio-bolumenaren galera edo murrizketa gainditzea.<br><br>• Ez jakinaraztea ahal bezain laster Laudio Udalari beste dirulaguntza publiko edo pribaturen bat jaso izana, Laudio Udalak dagokion likidazioa onetsia izan arren. | Los supuestos que obrarán en este sentido son:<br>• El falseamiento de datos formulados en la solicitud o en la documentación aportada.<br>• Que el importe de la subvención, aisladamente o en concurrencia con otras ayudas públicas o privadas, supere el coste de la pérdida o minoración del volumen de negocio.<br>• Que no se comunique a la mayor brevedad posible al Ayuntamiento de Llodio la concesión de otras subvenciones públicas o privadas, aunque ya se haya aprobado por el |

| | |
|---|---|
| • Oro har, deialdi honetan nahiz dirulaguntzak arautzeko udal ordenantzan zehaztutako edozein betebehar ez betetzea. | Ayuntamiento de Llodio la liquidación oportuna.<br>• Y, en general, el incumplimiento de cualquiera de las obligaciones que se fijan en la presente convocatoria y en la Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones. |
| **HAMALAUGARRENA. Publikotasuna**<br>Deialdi hau ALHAO-n, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean, udaletxeko iragarkien taulan eta Laudio Udalaren webgunean argitaratuko da, eta ahal beste hedatzen saiatuko da hedabide sozialen bitartez. | **DECIMOCUARTO. Publicidad**<br>La presente convocatoria será publicada en el BOTHA, BDNS, tablón de anuncios y página web del Ayuntamiento de Laudio/Llodio, procurándose la máxima difusión a través de los medios de comunicación social. |

Laudio, 2020ko maiatza / *Llodio, mayo de 2020*

Alkate-udalburua / El alcalde-presidente
ANDER AÑIBARRO MAESTRE